

## Aitor Milok bere doktore-tesia irakurri du

2011/06/06

Ekainaren 3an goizeko 11etan, Aitor Milo Urkiola doktoregaiak bere tesia aurkeztu zuen Pedro Biteri y Arana Ikastetxe Nagusiko Areto nagusian. Bere tesiaren titulua hau da: 'Optimizazio herramienten aplikaziorako metodologia bat Behe-Tentsioko sarearen energia-eraginkortasuna hobetzeko asmoarekin.'

Bere tesiaren zuzendariak Jonan Barrena eta Haizea Gaztañaga izan dira.

Doktore hauek osatu zuten epaimahaia:

- Seddik Bacha (Joseph Fourier University - Grenoble)
- Pedro Rodríguez Cortés (Kataluniako Politeknikako Unibertsitatea)
- Daniel Roye (Institut National Polytechnique de Grenoble (INPG))
- Ion Etxeberria Otaduy (IKERLAN)
- Gonzalo Abad Biain (Mondragon Unibertsitatea)

Tesi honetan optimizazio herramienten aplikaziorako metodologia bat garatzen da Behe-Tentsioko (BT) sarearen energia-eraginkortasuna eta ondorioz sare elektriko osoarena hobetzeko helbururarekin. Aldi berean, metodologiaren balioztatzea Behe-Tentsioko hiru eremu desberdinetan aplikatuz gauzatzen da.

Lehen eremuan, Behe-Tentsioko distribuzio sarean, energia-eraginkortasuna hobetzeko optimizazioaren gaitasuna egiaztatzea ahalbideratzen du metodologiaren aplikazioak, sorkuntza barreiatuaren kokapen eta dimentsionamendu optimoen bidez. Bigarren eremuan, energia-eskaeraren kudeaketa aztertzen da etxe-alorrean. Bertan, garaturiko metodologiaren bidez optimizazioaren onurak frogatzen dira bai erabiltzailearentzat eta baita sarearentzat berarentzat ere. Azkenik, hirugarren eremuan, metodologiaren aplikazioarekin sarearen energia-eraginkortasunaren hobekuntza aukerak aztertzen dira bizitegi-alorrean auto-produkzioaren kudeaketaren bidez.



Aitor Milo epaimahaikoekin aurkitzen da